

Anna Juan Cantavella

BUKATZEN EZ DEN SOKA

HAURTZAROA
LITERATURA ETA
AUKERAKETA



2021/11/27

San Telmo Museoa

10:00-14:00 eta

15:30-19:30



“Bukatzen ez den soka: hautzaroa, literatura eta aukeraketa” ikastaroa

Hamabost urte baino gehiago dira Galtzagorri elkarteak Haur eta Gazte Literaturako Irakurketa Mintegia martxan jarri zuenetik. Honen baitan, urtero, tailer, hitzaldi zein ikastaro bat eskaintzen die mintegiko parte-hartzaileei eta baita interesa duen beste edonori ere.

Aurtengo ikasturterako formazio saio berri bat antolatu du Galtzagorri elkarteak ALDEE Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalek Euskal Elkartearekin elkarlanean. Oraingoan, **haur eta gazteentzako liburuak aukeraketa hartuko dugu hizpide, eta horretarako, Anna Juan Cantavella** adituak 8 orduko ikastaro trinkoa eskainiko du.

Liburuak aukeraketa irakurketaren bitartekariak euren lanean egiten duten lehen ekintza izaten da. Egitasmo jakin batzuetarako zein liburu aukeratu lanik garrantzitsuenetarikoa bihurtzen da merkatuaren gainproduktzioaren eta Haur Literaturaren esparruan egun dagoen ezagutza ezaren testuinguruan. Hain zuzen, Anna Juan Cantavellak hautaketa hori egiteko irizpideen gaineko hausnarketa egiten lagunduko die bitartekariak ikastaro honetan. Izan ere, egunerokotasunak erakusten digu kasu askotan hautaketa bat eraiki aurreko hausnarketa hori ez dela existitzen (askotan prestakuntza edo baliabide faltagatik), eta existitzea lortzen badu, beti alde batera uzten dituela irizpide literarioak edo estetikoak irizpide ekonomikoetan edo moraletan zentratzeko.

NORENTZAT:

Haur eta gazteen heziketa literarioa lantzen duten eta irakurzaletasuna sustatzeko kezka eta interesa duen edozein bitartekarirentzat: bibliotekariak, irakasleak, editoreak, kultur teknikariak, irakurketa proiektuetan parte hartzen duten begirale edo animatzaileak, literatur kritikariak...

LANDUKO DIREN GAIAK:

.Nola aukeratu ditugu liburuak? Hautzaroren eta Haur Literaturaren zein ideien arabera? Sinesmenak eta praktikak.

.Zentsura, hautzaroa eta Haur Literatura.

.Nola zabaldu ditzakegu liburu hautaketaren bideak?

.Nola eragiten dio testuinguruak liburu aukeraketari?

.Ze irizpide hartu behar dira kontuan haur eta gazteentzat liburuak hautatzeko?



IRAKASLEA:



ANNA JUAN CANTAVELLA Gizarte eta Kultura Antropologian doktorea da Bartzelonako Unibertsitatean eta Grenobleko Pierre Mendès France Unibertsitatean. Aipamena Nazioarteko Doktoretza.

Liburu eta Haur Literaturako masterra, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eta Venezuelako Liburuaren Bankuaren eskutik.

Literaturaren didaktikaren arloko irakaslea eta ikertzailea da. Gaur egun, UABko irakasle elkartua da Hizkuntzaren eta literaturaren didaktikaren sailean, Lehen Hezkuntzako Graduan hezkuntza literarioari buruzko ikasgaiak ematen ditu.

METODOLOGIA:

Saio dinamikoak izango dira, non talde-lana eta liburu zehatzetan oinarritutako tailerrak nahastuko diren eguneroko jardunetik teoriara joateko, eta hortik berriro praktikari buruzko hausnarketara.

NON: Donostiako San Telmo Museoko Ekitaldi aretoan: Zuloaga plaza, 1, 20003, Donostia.

NOIZ: Azaroaren 27an, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etatik 19:30etara.

IZEN-EMATEA: Izen-emate orria beteta eta diru-sarrerara egin izanaren ziurtagiria bidali behar dira azaroaren 19a baino lehen administrazioa@galtzagorri.eus helbidera.

Gehienez 35 ikaslek parte har dezakete. Onarpena izen-ematearen arabera egingo da.

- Galtzagorriko mintegiko kideentzat doan.
- Galtzagorriko bazkideak: 70 euro.
- Ez-bazkideak: 100 euro.